



IKASTEN Larre Gain sagardotegian sagardoa nola egiten den irakasten diete Hernaniko haurrei, sagardoaren kultura ezagut dezaten. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Sagarraz hamaika ikasteko

Hernaniko ikastetxeek esperientzia berri eta berezi batean esku hartu dute; herriko bizimoduarekin eta usadioarekin lotura estua duen jarduera bat lantzen ari dira eskolan. Esan beharrik ez dago Hernaniko herria sagarra eta sagardoaren inguruan bizi izan dela eta bizi dela. Aurtengo ikasturtean, sagarrak eta sagardotegiak eskualdean duten garrantziaz jabetze aldera, hezkuntza proiektua antolatatu du Artelatz kooperatibak.

«Proiektua Hernaniko Udalak egindako eskaera bati erantzute-

Sagarra eta sagardoa ikasleei ezagutarazteko ahalegina egin dute aurtengo Hernanin

ko prestatu genuen», esan du Elixabet Gondatek, Artelatz kooperatibako kideak. Eta horren zeregin nagusia «herriko ikastetxeak sagardogintzaren berri izatea da». Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako ikas programa da, lehen zikloko ikasmaileetarako hain zuzen ere, eta aurtengo DBH duten Hernaniko lau ikastetxeekin lan egin dute», Artelatzekoak zehaztu

duenez. Programarekin aurreko udaberrian hasi ziren, sagarrondoari kimuak ateratzen zaizkionean. Ordutik hona makina bat eraldaketa izan du sagarrak, eta pausoz pauso bilakaera hori ikusteko parada izan dute ikasleek. Aurki amaituko dute programa, txotx garaiaren hasierarekin.

Orain arteko esperientzia aztertzean, baior agertu da Artela-

tzekoa: «Ikasleen erantzuna oso ona izan da. Kontuan izan behar dugu zerbait praktikoa eta gelatik kanpo antolatzen bada harrera ona izaten duela gehienetan». Ikasleek jakin-mina agertu dutela gaineratu du: «Asko ikasgordotegia zer den bazekiten, gurasoei joan izan direlako, baina ez zekiten sagardoa lortzeko zer bide egin behar zen eta jakin-mi-

na piztu zaie egindako ikastaroarekin».

Bost helburu

Programaren helburuak bost izan dira eta zehazki azaldu dizki-

ASTEARTETIK OSTIRALERA:

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDOTEGIA
- KARTA

ASTEBURUETAN:

- SAGARDOTEGIA
- KARTA



BORNAX
SAGARDOTEGIA - ERRETEGIA

ESPEZIALITATEA:

- ARRAINAK
- TXULETOIA SOLOMILLOA
- ERRIBERAKO BERDURA FRESKOA

VALTIERRA-ARGUEDAS INDUSTRIALDEA - 11. PARTZELA

VALTIERRA NAFARROA
TEL.: 948 84 46 46



SAGARDOTEGIA
Inaxio Ollokiegi Zubillaga

Txoritokieta p. • Tel.: 943 55 52 20
20115 ASTIGARRAGA



Urtarrilaren 7tik aurrera
TXOTX denboraldia
ZABALIK

☎ 16 25 23

Zubi Erreka auzoa, 9
20210 - LAZKAO

gu Gondatek: lehena, «sagarrik eta sagardoak Hernanin eta eskualdean izan duten garrantzia jabetzea»; bigarrena, «diziplinen arteko elkarlana sustatzea ikasleek gaia orokorrean har dezaten»; hirugarrena, «gaiak herriko ondare historikoan, toponimian, paisaia eta kultura eduki duen eta daukan eragina aztertzea»; laugarrena, «gaur arte izandako bilakaera eta etorkizunera begira ginditu beharreko erronkak ezagutzeta», eta azkena, «herriko Sagardoaren Egunean, hots, urtarrilaren 22an, parte hartzea, lehenengo hiru hilero egindako lanak plazaratuz».

«Ipinitako helburuak betetze-ko ahalegin guztiak egin ditugu», esan du Artelatzeoak. Dena den, proiektuaren ebalazio zehatza egiteko goiz dela esan du. «Aurtengo esperientzia lehena izan da eta etorriko direnak hobetzeko balioko digulakoan gaude», dio Artelatzeoak. Esaterako, urtaril bukaeran ospatuko den Txotx Eguna dela eta, Udala parte-hartze zuzenaren aldeko azaldu da. Alabaina, irakasleak beldur dira ikasleek alkoholarekin arazoak izango ote dituzten. Hala, «ikasleek nahiago dute astegunean egitea aurtengo ekitaldia», esan du Gondatek. Aurreneko esperientzia honen balorazioa egitean gorabehera hauek guztiak aztertuko dituztela gogorarazi du.

Ikastaroa emateko «metodologia parte-hartzailean» oinarritu direla azaldu du Artelatzeoak. «Horretarako, ikus-entzunezko materialez baliatu gara eta Power Point bat egin dugu irakasle zein ikasleekin gaia gelan tratatzeko. Hori gelan eman dugu, irteeren aurretik. Bestalde, Hernaniko Ereniozu auzoan dagoen sagardotegi batean izan gara. Han, antzinako dolarea ezagutu eta gaur egungo dolarearekin alderatu genuen, eta sagarretik sagardorainoko prozesua ikusteko aukera izan dugu. Bisitan, sagarra prentsatu ondoren lortutako lehen muztioa dastatzeko aukera ere izan zuten ikasleek». Horretaz gain, «sagastiek behar duten zainketa tailerra egin dugu; urtaro bakoitzean eginkizun zehatza behar baitute sagastiek. Sagarrondoak kimatzen ikasi dute ikastaldeen, Manu Iradi herriko



GUSTURA ♦ Adi-adi egoten dira gaztetxoak, jakin-minez. ION URBE / ARGAZKI PRESS

lorazainaren eskutik». Azken saioa hilaren amaieran egin nahi dutela esan du Gondatek: «Proiektua txotx garaia hastean amaituko da eta jolasean ospatu dugu ikasitako guztiak».

Ikasunitatea, urtaroka

Sagarrari eta sagardoari buruzko ikasunitatea urtaroka antolatu dute. Izan ere, urtaro bakoitzean oso egoera desberdinean

egoten dira sagarra, sagarrondo eta sagardo, eta, hala, ikastaroaren gaiak eraldatuz doaz. Udaberrian hasten da zikloa, sagarrondoak kimuak ireki eta hostoak zein loreak sortzen di-

renean. «Garai honetan, ikuspegi historikoa landu dugu, hau da, euskal sagardoaren sorrera aztertu dugu. Bestalde, lorearen atalak, polinizazioa eta eragileak... ikasi ditugu», argitu du Gondatek.

«Udan, lorea fruitu bihurtzen da eta ikasleak sagar motak desberdindu eta sailkatzeko ahaleginak egin dituzte: mahaiko sagarra, sagardorako sagarra... Gainera, barietateak desberdintzen ikasi dute. Eta sagarra biltzeko erabilitako tresneria nola erabiltzen den ikusteko aukera izan dute; besteak beste, kizkia, saskia, zakua, gurdia...

«Udazkenean, berriz, sagarren bilketa eta lanketa prozesuan esku hartu dugu: sagarretik sagarrondorainoko prozesuaren jarraipena egin dugu, hartxidura prozesua ikusi dugu, dolarea eta upategiak ezagutu ditugu.

«Neguan, sagardoa dastatzeko prest dago, beraz, sagardotegietan sagardoa upeletik zuzenean hartzea eta sagardoaren botillatze lana aztertu dugu. Sagardotegiek herriari eskaintzen dizkioten gauza onak eta txarrak eztabaidatu ditugu. Adibidez, ohitura, festa, zikinkeria, alkoholismoa...», azaldu du Gondatek.

Artelatzen ibilbidea

Hamabi ikasturte daramatzate herriko *Hi! Hernani eta Ingurumena!* proiektua garatzen eta bertan ingurumen hezkuntzari buruzko programa dinamizatzen dute. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat da eta ura, landare-tza eta hondakinak dira jorratzen diren gaiak, Gondatek azpimarratu duenez. Hiru gai hauek ardatz harturik, herriko errealtatea aztertu gura dute.

«Oraingoan, gaia sagarra eta sagardoa izanik, aproposagoa iruditu zitzaigun Bigarren Hezkuntzako ikasle taldeei eskaintzea. Gure proiektuko zeregin nagusia herriko baliabideak ezagutaraztea eta jarduera parte-hartzaileak garatzea da», zehaztu du Artelatzeoak. Horretan ari dira eta horretan jarraituko dute lanean geroago ere. Aurrera, ba!



GAZTANAGA

TOLARE -SAGARDOTEGIA

Buruntza auzoa z/g
Irurain baserria
20140 ANDOAIN
(Gipuzkoa)

Tel.: 943 59 19 68

